

Agur goxoak

Miren Azkarate
Badiola

Batzuk badoaz eta beste batzuk badatoz. Osaba duela hilabete joan zitzaigun eta bigarren haurra hilabete barru izango dut. Bizitzaren legea omen da, batzuei agur eta besteei kaixo esatea. Halaxe tokatu zait niri ere oraingoan. Ezberdina izan da lehenaren kasua, beti bezala tristea izan da bai, baina era berean bere oroi-menezko ekitaldiak umoretik, abestuz eta maite genuen guztion artean (asko gara!) antolatuak izan dira. Eta ezberdina izaten ari da ere bigarrena, oraingo honetan ez bainaiz ni haurdun dagoena, nire bikotea baizik.

Ez nuen sekula imajinatuko guraso izango nintzenik ni neu izan gabe nire haurra erditzen duena, Disney-k eta “Goenkale”-k ez zidaten zirrikiturik txikiena ere eskaini horretarako. Eta hala-ko batean emakume batekin eraiki nuen nire bizi proiektua eta abaniko zabal bat ireki zen nire aurrean. Lehenengo haurra nik ernalduko nuela argi genuen bezala, denborarekin, bigarrena berak ekarriko duela ere adostu dugu. Prozesua oso ezberdina da eta esan behar dudan lehen gauza da luxu bat dela. Hau da, oso zortedun sentitzen naiz alde ezberdinetatik bizi ahal izateaz haziera. Bada-

kit zer den erditze bat eta orain akonpainamenduaren aldea ezagutzen ari naiz, baina beti bestea bizitzen ari den hori oso ongi ulertuz: hasierako gorputzaldi txarrak, ttikiaren lehenengo mugimenduak sentitzea, tripa handituz doan heinean lo okerrago egitea... Egoera bitxia egiten zait oraindik baina asko gozatzen ari naizenik ezin uka, esan bezala ohikotik kanpo dagoen egoera bat delako. Pozik nago osabari modu honetan esan diogulako agur eta pozik nago amatasunari horrela esango diodalako kaixo. •

Mendeku txiki bat

Antton Izagirre

Egun hauetan asko hitz egin da kataluniar presoen aldeko indultuaz eta espainiar erregeari, gogo txarrez, bere sinaduraz haiei eman beharreko babesak sortzen dion ezinegonaz. Jolas modura, maltzurkeria apur batek ematen didan argitasunak eraginda, une batez irudikatu dut bere errege jauregiko idatz mahai borobil edo karratuari biraka, zer pentsa, birao-ka, “mekaguenka”, trantze estu horretatik eroso irten nahian bidezidorraren bila. Akordura ekarri ditut beste garai batean, ehunka zinegotzi, alkate, parlamentari... makurrarazi asmoz, gogo txarrez geu ere, konstituzio espainiarrari men egitera behartu nahi gintuzteneko

denborak. Nola, irudimenak akuilaturik, “legeak hartara behartuta” lelo bera erabiltzen genuen bata bestearen atzetik, inposaketa hura salatzeke, duintasuna zapal ez ziezaguten. Edo espainiar ejerzitoan soldadutza egitera eraman eta espainiar banderari muin egitera behartzerakoan, ataka horretatik agindua osotasunean bete gabe nola pasatu erabakitzeke asmatzen gennituen trikimailuak. Gauza bera, espainiar bandera udal-
txeko balkoietan jartzera behartutako alkateek hura ikusezin egiteke buruturiko saiakerak. Pentsamendu horietan katramilaturik espainiar erregeak zer bide hartuko

duen jakin-minak arreta piztu dit eta agian harentzat ere irtenbiderik proposena indultuen sinadura “legeak hartara behartuta” egitea litzatekeela pentsatu dut. Baina euskal abertzale disidenteok erabilitako eredu berbera erabiltzeak kontraesan gehiegi sortuko dizkiolakoan, baztertu dut aukera hori. Orduan etorri zait gogora Madrilgo presidente andereak iradokitako aukera; hau da, indultuak sinatzeari uko egitea-rena eta irribarretxo maltzurra egin dut. Iruditu zait hori litzatekeela nik desio nukeen joera. Edonola ere, patuak eraginda, mendeku txiki bat izango da. •